

Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP) egiteko eta birmoldatzeko gida



Donostiako Berritzegunea
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroa
2011

Aurkibidea

1.-Sarrera	
1.1. Marko legala	3
1.2. Marko teorikoa	4
2.-ICParen alderdiak	6
2.1. Ikastetxean irakasten diren hezkuntza etapak	
2.2. Hizkuntzen trataera: Hizkuntza Proiektuaren aspektu curricularrak	
2.3. Eskola inklusiboa: aniztasunari erantzuteko neurriak	7
2.4. Tutoretza eta orientazioa: Tutoretza-plana	
2.5. Metodologia	
2.6. Ebaluazioa	
2.7. Eremu, arlo eta ikasgaiak	8
2.8. Curriculumaren garapenarekin lotutako antolaketa	
3.- ICPa egitea eta onartzea	9
3.1. Marko legala	
3.2. Proiektua egiteko hastapenak	
3.3. ICPa egitea eta birmoldatzea	10
3.3.1. ICPa egiteko eta birmoldatzeko klaustroaren antolaketa	
3.3.2. Lan prozesua	
4.- Dokumentazio ofiziala	12

1.- SARRERA

1.1.- MARKO LEGALA

97/2010 DEKRETUAK, martxoaren 30ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko den 175/2007 Dekretua, urriaren 16koa aldatzen duenak, horrela egiten dio erreferentzia Curriculum-Proiektuari:

“...Ikastetxeen autonomia eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea dira dekretu honek indartu nahi dituen beste ildo estrategiko batzuk. Dekretu honek tarte handia uzten die ikastetxeei beren autonomia erabil eta zehaztu dezaten. Ikastetxeek curriculumeko, antolamenduko eta beste arlo batzuetako alderdi ugari zehaztu beharko dituzte hezkuntza-proiektuan eta **curriculum-proiektuan**. Hori dela eta, dekretu honek ez ditu curriculumaren alderdi guztiak zehazten; aitzitik, berariaz bultzatzen du ikastetxeek beren gain har dezaten, arduraz, hezkuntza-komunitate bakoitzean aplikatuko den curriculumak zehazteko lana. Horrez gainera, talde-lanaren aldeko aldarria egiten du, eta orokortu egin nahi ditu euskal hezkuntza-sisteman azken urteotan landu diren jardunbide egokiak.

Ikastetxeek autonomia pedagogikoa eta antolamendu-autonomia dute hezkuntza- eta kudeaketa-proiektuak egin, eta, horien bidez, eskola-ordutegia handitzeko edo haren antolamendua aldatzeko; betiere, hezkuntzaren etengabeko hobekuntza errazteko. Planteamendu hori eginda, ikasleen ezaugarrietara eta ikastetxe bakoitzaren gizarte-testuingurura molda daitezke hezkuntza-proiektuak.

Ikasleen eskolaldia arrakastatsua izan dadin, funtsezkoa da hezkuntza-komunitateko sektore guztiek, eta, batik bat, familiek ikasleen hezkuntza-bidean parte har dezaten; hala, dekretu honek erraztu egiten du partehartzeko hori, ikastetxearen hezkuntza-proiektuko planak zehazteko orduan.

Horrenbestez, ikastetxeetako gobernu- eta partaidetza-organoei eta irakasleriek zehaztu eta egokitu beharko dituzte, azken buruan, hezkuntza-gaitasunak eta curriculum-edukiak ikastetxeen ezaugarrietara, eta horixe bera egin beharko dute jakintza-arloen eta ikasgaien ordutegi-esleipenarekin.”

19. artikuluan, Ikastetxearen Curriculum Proiektua zehazki definitzen du eta bere elementuen berri ematen du:


19. artikulua.– Ikastetxearen Curriculum Proiektua.

1. Dekretu honen esanetara, dekretu honexek araututako curriculumak ikastetxe bakoitzean duen zehaztapena da curriculum-proiektua.
2. Curriculum-proiektuak ikastetxearen testuinguru sozioekonomikora eta kulturalera, ikasleen ezaugarri eta premietara, eta ikastetxearen hizkuntza-aukeretara eta baliabideetara egokitu behar du dekretu honen eranskinetan araututako curriculumak; betiere, ikastetxeko hezkuntza-proiektua erreferentziatzen hartuta. Hala, curriculum-proiektuak Oinarrizko Hezkuntzako irakaskuntza-edukiak zehaztuko ditu Lehen Hezkuntzako zikloetarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztietarako, eduki horiek dekretu honetan araututako curriculum ofiziala betez irakats daitezela.
3. Ikastetxearen Curriculum Proiektuak honako alderdi hauek finkatuko ditu, gutxienez:
 - Hezkuntza-jarduerari lotutako gaitasunak, helburuak eta edukiak, ikasleen beharrei egokitutakoak, irakaskuntza-alderdi guztietan jasoak.
 - Ziklo edo ikasturte bakoitzeko ebaluazio-irizpideen zehaztapena, etapa bakoitza amaitzean eskuratu beharreko gutxienezko gaitasun-mailak, eta ikasleen ebaluazio- eta promozio-prozesuari buruzko erabakiak.
 - Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuko curriculum alderdiak.
 - Pedagogia-irizpideen eta irizpide didaktikoen zehaztapena, bai eta metodologia-aukerena eta curriculum-materialei buruzkoa ere, betiere, ikastetxeko irakasleen lanaren jarraikortasuna eta koherentzia bermatuta izanda.
 - Hezkuntza-laguntzaren premia berariazkoa duten ikasleen egoera osotasunean tratatzeko irizpideak, bai hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleena, bai gaitasun indibidual handiak dituztenena, bai hezkuntza sistemara berandu sartu direnena.
 - Aukerakotasunari eta curriculum desberdineko alderdiei buruzko erabakiak.
 - Tutoretza-ekintzarako irizpideak eta hezkuntza orientazioa egiteko moduari buruzkoak.
4. Hezkuntza-etapa bat baino gehiago irakasten dituzten ikastetxeetako curriculum-proiektuek zehaztu egin beharko dituzte hezkuntza-etapa bakoitzaren ezaugarriak, haien arteko koherentzia zainduz.

1.2.- MARKO TEORIKOA

ICPa ikastetxe batean heziketa proiektua praktikara eramateko modua zehazten duen tresna da. Proiektu horri kohesioa, koherentzia eta jarraipena emateko egina dago eta asmo curricularrak heziketa errealitate bilaka daitezzen ahalbidetzen du.

Hortaz, tresna hau erabilgarria izan beharko da eta benetako eragina beharko du ikastetxearen heziketa errealitatearen eta irakaskuntzaren kalitatearen erreforman eta eraldaketan. Hori dela eta, proiektua egiteak, berrikusteak eta hobetzeak lotura zuzena izango dute irakasleen etengabeko prestakuntzarekin.



ICP-A IZAN BEHAR DENA ETA IZAN BEHAR EZ DENA	
ICP-A IZAN BEHAR DENA:	ICP-A IZAN BEHAR EZ DENA:
Ikastetxe bateko hezkuntza kalitatea hobetzeko tresna erabilgarria.	Ohiko izapide burokratikoaren dokumentua, ikastetxearen errealitatean oinarritua eta hari moldatua ez dagoena. Are gehiago, "kopiatua" eta hezkuntzaren kalitatearen hobekuntzarako erabilgarria ez dena.
Hezkuntzan esku hartzeko proposamen multzoa, errealitate jakin baten baitan Administrazioaren curriculum aginduak eta orientazioak zehazten dituena.	Curriculumarekin zerikusia duen postulatu ideologikoen arteko lotura hutsa.
Hezkuntza komunitatearen zerbitzura dagoen dokumentu kolektiboa, ikastetxe bateko irakasleriak partekatzen dituen irizpideak adierazten dituena.	Hezkuntza komunitateak ezagutzen eta eskura ez duen dokumentua.
Ikastetxe baten hezkuntza jardunari kohesioa, jarraipena eta koherentzia ematen dion tresna.	Irakasleriak partekatzen ez duen dokumentua.
Irakasleen jardunaren hausnarketa eta eraberritze pedagogikoa bideratzeko tresna.	Berrikusten eta aldatzen ez den dokumentua.

Hona hemen LOGSEk eta LOEk zehaztutako curriculumen arteko ezberdintasun nagusiak, ICPa berriz ere egitean kontuan izan beharrekoak:

OINARRIZKO CURRICULUM DISEINUEN ARTEKO EZBERDINTASUN NAGUSIAK	
LOGSE ETA CURRICULUM GARAPENERAKO DEKRETUAK (90. HAMARKADA)	OINARRIZKO HEZKUNTZAREN CURRICULUMA (2010)
1. Gaitasunen garapena	1. Oinarrizko kompetentzien garapena
2. Aniztasunari erantzuteko planteamendu integratzailea	2. Aniztasunari erantzuteko planteamendu inklusiboa
3. Edukiak kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak dira, sekuentziaziorik gabe.	3. Edukiak ez dira sailkatzen, baina ziklo eta mailen arabera banatzen dira
4. Etaparen arabera ebaluazio irizpideak	4. Ziklo eta mailen arabera ezartzen dira ebaluazio irizpideak eta adierazleak.
	5. Ikasgai edo alor berri bat ezarri da: Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza
	6. Ebaluazio diagnostikoa ezarri da hobekuntzarako planak ezartze aldera

- LOGSEk gaitasunen garapenena ezartzen zuen bitartean, LOEk oinarrizko kompetentzien garapena proposatzen du. Kompetentzia horiek ez dira soilik jakintzaren alor ezberdinetan egindako lanaren bidez eskuratuko; baizik eta eskolako nahiz eskolaz kanpoko testuinguruetako edozein esperientzien bidez.
Oinarrizko kompetentzien garapenaren planteamendu berri hau ICP berrian islatu beharko da, bereziki, aldagai metodologikoen tratamenduari dagokionean.
Hona hemen Oinarrizko Hezkuntzan garatu beharreko oinarrizko kompetentzien zerrenda:
 - Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia.
 - Ikasten ikasteko kompetentzia.
 - Matematikarako kompetentzia.
 - Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
 - Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko kompetentzia.
 - Gizarterako eta hiritartasunerako kompetentzia.
 - Kultura humanistiko eta artistikorako kompetentzia.
 - Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia.
- Aniztasunari erantzuteko planteamendu inklusiboaren helburua parte hartzearen eta ikaskuntzaren oztupoak gainditzea eta ikasle guztiek euren garapenaren goren lortzea da. Horrek ondorengoak lehenestea esan nahi du:
 - Oinarrizko kompetentziak garatzea.
 - Ikaskuntzako zailtasunak aurreikusi eta horiei arreta jartzea.
 - Aniztasunari arreta jartzea, aniztasuna tratatzeko moduak sendotuz eta zenbait neurri ezarriz. ICPak aipatu modu eta neurriak islatu eta garatu beharko ditu.

Aipatutakoarekin lotuta, eskolako bizikidetzarekin harremana duten aspektuak sustatu behar dira eta tutoretzaren funtzioari arreta berezia eskaini.
- / 4. ICPa egitean 2010eko Dekretuak proposatutako edukiak eta ebaluazio irizpideak eta adierazleak zehaztu beharko dira. Horiek zehaztutakoan, aldatzeko aukera egongo da, beti ere helburua ikastetxeko ezaugarrietara eta ikasleetara moldatzea bada eta ez badu helburuetan ezartzen diren kompetentzien garapena murrizten. Edukiak eta ebaluazio irizpideak eta adierazleak dekretuan bertan bereziak egoteak, Oinarrizko Derrigorrezko Hezkuntzaren kasuan, irakasle taldeen lana errazten du ICPa egitean.
 - Garrantzia eta gaurkotasuna duenez, arreta berezia eskaini beharko zaio "Herritartasunerako Hezkuntza" arloari edo ikasgaiari.
 - Azkenik, ikastetxeetan Ebaluazio Diagnostikoa ezarri ondoren egindako hobekuntzarako planak ICPa egitean edo berrikustean islatu beharko dira. Plan horiek ICParen alor ezberdinei eragingo diete, bereziki, ikasleen kompetentzien garapena lortzeko jarraitu beharreko metodologiari eta hobekuntzarako planetan ezarritako edukiei lehentasuna eman eta edukiok sartzeari.

2.- ICParen ALDERDIAK

2.1. IKASTETXEAN IRAKASTEN DIREN HEZKUNTZA ETAPAK ETA HORIEN ZEHAZTAPENAK:

2.1.1. Tokiaren, ikasleen eta familien ezaugarri soziokultural, ekonomiko eta linguistiko nagusiak eta ezaugarri horiek ikastetxean duten eragina zehaztea. Horiek guztiak Ikastetxearen Curriculum Proiektuan agertu beharko dira.

2.1.2. Ikastetxean irakasten diren etapak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza...) eta etapa horien berariazko ezaugarriak eta antolaketa:

- Etaparen ordenamendu legalari erreferentzia
- Etapako ikasleen ezaugarri psikoebolutiboak
- Etaparen antolaketa: mailak edo zikloak, bakoitzaren ezaugarriak
- Eremu, arlo eta ikasgaien araberako antolaketa
- Etaparen jarduera osagarriak: irteerak, udalekuak...
- Ordu-tegi orokorrak eta arloaren araberakoak.
- Liburutegia, mediateka...

2.1.3. Etapa bakoitzeko helburu nagusiak:

- Oinarrizko Hezkuntza: 97/2010 DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum-a sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena
- Haur Hezkuntza: 121/2010 DEKRETUA, apirilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculum-a sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko Dekretua aldatzen duena.

2.2. HIZKUNTZEN TRATAERA: HIZKUNTZA PROIEKTUAREN ASPEKTU CURRICULARRAK

Hona hemen garatu beharreko arloak:

- Ikastetxearen egunerokoan erabili beharreko hizkuntza eta gainerako hizkuntzen tokia erabakitzea.
- Arlo bakoitzean erabili beharreko hizkuntza edo hizkuntzak.
- Atzerriko hizkuntzak eta ikasgeletan ematen zaien tratamendua.
- Hizkuntzak eta aniztasunari ematen zaion tratamendua.
- Hizkuntzen ikaskuntza eta erabilerarekin lotutako aspektu metodologikoak:
 - o Lehenetsi beharreko ikuspegia edo ikuspegiak.
 - o Irakurketaren eta idazketaren ikaskuntza
 - o Jarduera mota orokorrak
 - o Kasu ezberdinetan lehenetsi beharreko testu tipologia.
 - o Baliabideak.
 - o Hizkuntza zuzenketak egiteko modua.
 - o Hizkuntzen ikaskuntzan motibazioa lantzeko modua.
 - o ...

2.3. ESKOLA INKLUSIBOA: ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO NEURRIAK

2.3.1. Aniztasunaren kontzeptua: aniztasuna eta bere tratamendua nola ulertzen diren

2.3.2. Aniztasunari erantzuteko hastapen nagusiak.

2.3.3. Prozesua:

- Ikasleen beharrak hautematea (generoa, kultura ezberdina, ikasteko modu ezberdinak, egoera pertsonalak... direla eta) eta irakasleriaren funtzioak zehaztea (tutorea, laguntza ematen duen irakasleria, aholkularia...).
- Identifikazioa/Diagnostikoa: informazioa jasotzea, baloratzea eta ondorioak ateratzea.
- Erantzuna: harrera plana, laguntza jartzeko irizpideak, ikastetxean proposatutako neurri zehatzak eta Hezkuntza Sailak sustatutakoak:
 - o Kulturartekotasuna sustatzea: kultura arteko dinamizatzailerak eta Hizkuntza Indartzeko Programako Irakasleak (HIPI)
 - o Eskolatzeko Osagarriko Programak
 - o PROA plana: Eskola-laguntza Programa eta Errefortzu eta Laguntza Programa
 - o Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Proiektua (HBSP)
 - o Curriculum Aniztasuneko taldeak eratzeko programak (CA), ...
- Beste zerbitzuekin/erakundeekin lankidetzak: Berritzeguneak, CRI, ASPACE, GAUTENA, ARANSGUI, Udala, GKE-ak, Foru Aldundia...

2.4. TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA: TUTORETZA PLANA

2.4.1. Tutoretza eta orientazioaren kontzeptua

2.4.2. Tutorearen funtzioak (ikasturte hasierako argibideak)

2.4.3. Ikastetxearen Tutoretza Planaren atalak.

2.5. METODOLOGIA

2.5.1. Hastapen metodologiko orokorrak

2.5.2. Aldagai metodologikoekin lotutako irizpideak:

- o Ikasleriaren taldekatzea
- o Espazioa eta denboraren antolaketa eta erabilera
- o Giza- eta material-baliabideak
- o Ebaluazioa prozesu didaktikoan

2.6. EBALUAZIOA

2.6.1. Ebaluazioaren kontzeptua

2.6.2. Ikasleen ikasketa prozesuaren ebaluazioa:

- Zer ebaluatu
- Nola ebaluatu: teknikak eta tresnak, erregistroa.
- Noiz ebaluatu
- Nork ebaluatu
- Ebaluazio irizpideak eta adierazleak, eta berauek ikasleei zabaltzea
- Familiei informazioa

2.6.3. Ikasturtez pasatzea eta titulazioa lortzea: ziklo, maila eta etapa igarotzeko irizpideak

2.6.4. Irakaskuntza prozesuaren eta irakaslearen jardunaren ebaluazioa:

- Ebaluatu beharreko alderdiak
- Prozedurak
- Tresnak

2.7. EREMUAK, ARLOAK ETA IKASGAIK

2.7.1. Eremu, arlo eta ikasgai bakoitzaren ezaugarriak.

2.7.2. Eremu, arlo eta ikasgai bakoitzak oinarrizko konpetentzien garapenean duen ekarpena.

2.7.3. Eremu, arlo eta ikasgai bakoitzaren helburu orokorrak, edukiak eta ebaluazio irizpideak eta adierazleak.

2.7.4. Metodologia eta baliabideak.

2.8. CURRICULUMAREN GARAPENAREKIN LOTUTAKO ANTOLAKETA

2.8.1.- Barne funtzionamendurako lan ildoak.

- Etapako kideak eta beren funtzioak: tutoreak, aholkularia/orientatzailea, ikasgaien irakasleria eta espezialistak, laguntzaileak, PTak, koordinatzaileak...
- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren eta ikasleriaren garapen pertsonalaren eta sozialaren gaineko lankidetzak/koordinazioa (mintegiak, departamentuak, zikloak eta mailak, Elkarbizitza Behatokia...), landu beharreko gaiak, garatu beharreko zereginak, aldizkakotasuna... aipatuz.

2.8.2.- Curriculum proiektua bera ezartzeko eta ebaluatzeko mekanismoak.

- ICP berriaren alderdi ezberdinak irakasleen jardunean, eskolaz kanpoko jardueretan eta jarduera osagarrietan ezartzea eta urteko planetan txertatzea.
- ICParen Ebaluazioa Plana:
 - o Ebaluatu beharreko alderdiak definitzea.
 - o Ebaluazio irizpideak azaltzea.
 - o Ebaluazio tresnak aukeratzea edo/eta egitea.
 - o Ebaluazio prozesua antolatzea: momentuak eta epeak, inplikaturako pertsonak...

3.- CURRICULUM PROIEKTUA EGITEKO ETA EBALUATZEKO PROZESUA

3.1.- MARKO LEGALA

ICPa egitea, onartzea eta ikuskatzea direla eta, 97/2010 DEKRETUAK, martxoaren 30ekoak, 175/2007 Dekretua, urriaren 16koa aldatzen duenak, honako hau dio 20.artikuluari:

20. artikulua.– Ikastetxearen Curriculum Proiektua egitea.

1.– Zikloak eta ikasturteak ezartzen diren neurrian egingo dute ikastetxeek curriculum-proiektua. Ezarpen- prozesua amaituta, Hezkuntza Administrazioari aurkeztuko zaio curriculum-proiektua, eta azken horrek, hezkuntzako ikuskaritzaren txostena jaso ondoren, curriculum-proiektuak hari aplikagarri zaizkion arauak betetzen dituen ala ez erabakiko du, eta, horri erreparatuta, proiektuaren bideragarritasunari buruzko oharrak egingo ditu.

2.– Ikastetxe publikoetan eta itunduetan, Irakasleen Klaustroak egin beharko du curriculum-proiektua. Klaustroari dagokio curriculum-proiektua onartzea, baina, hura onartu aurretik, Eskola Kontseiluaren iritzia jaso beharko da ikastetxe pribatu itunduetan, eta Ordezkaritza Organo Gorenarena ikastetxe publikoetan. Curriculum-proiektuan xedatutakoak urteko planaren bidez gauzatuko dira ikasturtean zehar, eta, zehazki, irakaskuntza-jardueretako programaren bidez eta prestakuntza-jardueretako, eskolaz kanpoko jardueretako eta jarduera osagarrietako programaren bidez.

3.– Finantziario publikorik gabeko ikastetxe pribatuetan, curriculum-proiektua nork egin eta onartu behar duen jakiteko, eskumenen barne-banaketari erreparatu beharko zaio.

4.– Ikastetxean irakasten diren hezkuntza-etapa guztiak landuko ditu curriculum-proiektuak. Hasierako hezkuntza-etapetatik ikasleak jaso ohi dituzten ikastetxeetan, etapa bakoitzeko curriculum-proiektuak egiteko prozesua koordinatzeko batzorde bat eratuko da, etapa horien arteko koherentzia bermatzeko.

5.– Ikasturte hasieran, jakitera eman beharko dira maila bakoitzean gainditu beharreko gutxieneko helburuak eta ikastetxearen curriculum-proiektuan onartutako ebaluazio-irizpideak.

6.– Ikastetxeetako hezitzaileek autonomia izango dute hezkuntza-maila horretan erabili behar den material didaktikoa aukeratzeko, betiere Dekretu honen eranskinean ezarritako curriculumera egokitzen badira.

7.– Testuliburuak eta bestelako materialak eskuratu eta argitaratzeko ez da beharko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren baimenik. Nolanahi ere, liburu eta materialon zorrotasun zientifikoa eta hizkuntza egokitu egin beharko dira ikasleen adinera eta dekretu honetan araututako curriculumera. Era berean, islatu eta sustatu egin beharko dituzte gure ordenamendu juridikoaren printzipio, balore, askatasun, eskubide eta betebeharrak, baita lege hauetan jasotako printzipio eta baloreak ere: otsailaren 19ko 1/1993 Legean —Euskal Eskola Publikoaren— abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan —Genero Biolentziaren kontra guztiz babesteko neurriari buruzkoan—; izan ere, hezkuntza-jarduera lege horietara egokitu behar da.

8.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio ikastetxeek beren pedagogia-autonomia erabiliz aukeratutako testu-liburuak eta gainerako curriculum-materialak ikuskatzea, ikaskuntzako eta irakaskuntzako elementu guztiak ikuskatzeko ohiko prozesuaren baitan.

Ondorioz, hona hemen, ICPari dagokionean, ikastetxe publiko nahiz itunpekoetan estamentu ezberdinen funtzioak:

KLAUSTROA	<ul style="list-style-type: none"> - Egitea - Onartzea - Ezartzea, inplementatzea (Urteko Planak: irakasleen jardunak, eskolaz kanpoko jarduerak, Berrikuntza/Prestakuntza Planak...)
O.O.G. – E. K.	<ul style="list-style-type: none"> - Iritzia ematea
IKUSKARITZA	<ul style="list-style-type: none"> - Informatzea, ikuskatzea
ADMINISTRAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> - Oharrak hartzea - Lege-onespena duen erabakitzea

3.2.- CURRICULUM PROIEKTUA EGITEKO HASTAPENAK

Arestian esandakotik ondorioztatu daitekeen bezala, Klaustroa da, proiektua egiteko ardura nagusia duena, eta horretarako, komenigarria da ondorengo hastapenak kontuan hartzea:

1. PARTE HARTZEA	ICPa egiteaz eta ezartzeaz pertsona berdinak arduratzeak, proiektuaren eta aplikazioaren arteko koherentzia eta kohesio handiagoa dakar. Gainera, proiektuan parte hartzeak ikastetxeko partaide izatearen zentzua areagotzen du, eztabaida piztu, iritzi kontrajarriak sortu, eztabaidatu eta adostasuna bilatu...
2. JARRERA KRITIKOA ETA GOGOETATSUA	Ikastetxeetan lehenago egindako dokumentuak badaudela kontuan izanik, kontua ez da hutsetik hastea, dokumentu horiek birmoldatzea baizik. Horrek eguneroko jarduna baloratzeko aukera eskaintzen du eta dokumentu horietan islatzekoa, ekiteko zenbait modu eta alderdi berretsiz edo/eta beste zenbait aldatuz. Azken batean, jarduna aztertzea eta gogoeta egitea da helburua.
3. ALDAKETA EMATEKO PRESTAKUNTZA ETA GOGOEA	Dekretuan proposaturiko ikuspegi berriak txertatzeak, kasu askotan, prestakuntza prozesuak martxan jartzea eragin beharko luke. Horrek bide emango luke ikuspegi horien gaineko gogoeta egitera eta ikastetxe eta ikasgeletan praktikan jartzera. Irakurketak, debateak eta eztabaidak, esperientziak aztertzeak, praktika jakinak eta irakasteko moduak aztertzeak... prozesu horien garapenean lagun dezakete.
4. ERAGINKORTASUNA	Aipatu hastapenak errespetatuz, ikastetxe bakoitzean antolaketa eta prozedura mekanismoak eratu beharko lirateke dokumentua legearen araberrako epean egin ahal izateko.

3.3.- ICP-A EGITEA-BIRMOLDATZEA

3.3.1.- IRAKASLE-TALDEAREN ANTOLAKETA ICP-A EGITEKO-BIRMOLDATZEKO

Zalantzarik gabe, IPCa birmoldatzeko klaustroak erabakitako antolaketa eredia aldagai hauen araberrakoa izango da: kide kopurua, ikastetxeak dituen etapak, aurretiko esperientziak, gauzatu nahi den lan prozesua bera... Nolanahi ere, Koordinazio Batzordeak edo Pedagogia Batzordeak egindako dokumentuak koherenteak direla bermatu beharko du. Hona hemen antolaketa eta lan taldeak egiteko aukera bat:

COORDINAZIO BATZORDEA/ PEDAGOGIA BATZORDEA	<p>Batzordea dena dela ere, bertan ikastetxeko zuzendaritzaz gain, etapa eta ziklo ezberdinetako kideek parte hartu beharko dute.</p> <p>Hona hemen, besteak beste, beren funtzioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lan batzordeak antolatzea eta dinamizatzea, eztabaidarako proposamenak egitea, lan ildoak ezartzea, epeak zehaztea, tresna eta materialez hornitzea... - Batzordeek egindako lanak jasotzea, birformulatzea, idaztea eta antolatzea, lanen arteko koherentzia bermatuz. - Hala balegokio, ikasleriaren jatorrizko edo ondorengo ikastetxeetako batzorde homologoeekin koordinatzea.
LAN-BATZORDEAK, MINTEGIAK, DEPARTAMENTUAK, ZIKLOAK	<p>ICPan ziklo eta etapa guztientzat berdinak diren elementuak daudenez, eta koherentzia egon dadin, IPCa ziklo edo/eta departamentu guztietako kideek egitea komenigarria da. Batzorde mota ezberdinak era litezke.</p> <p>Hona hemen ereduren bat:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ziklo, arlo, eremu eta ikasgai guztientzat berdinak diren alderdiak landuko

	<p>dituzten batzordeak. Alderdiak honako hauek izan daitezke: etapa bakoitzaren alderdi orokorrak, hizkuntzen trataera, aniztasunaren trataera, metodologiaren alderdi orokorrak, tutoretza eta orientazioa, ebaluazioaren alderdi orokorrak eta curriculumarekin lotutako antolaketa eta funtzionamendua. DBHko kasuan, ziklo eta mailez gain, departamentu ezberdinetako irakasleek ere parte hartzea komeni da.</p> <p>Aniztasunari erantzuteaz arduratzen den batzordean Pedagogia Terapeutikoko irakasleren bat egon beharko da, baita ahokularia/orientatzailea ere, baina ez horiek bakarrik.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eremu, arlo edo ikasgaiez arduratzen diren batzordeak, oinarritzko gaitasun ezberdinekin duten lotura lantzen dutenak: Haur Hezkuntzako eremuak, Matematika, Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Hizkuntza, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza, Natura Zientziak, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia, Teknologia, Ingurunearen Ezaguera, Gorputz Hezkuntza, Plastika eta Ikus-Hezkuntza, Musika..., hautazkoak eta aukerakoak. - Beste aukera bat, Haur eta Lehen Hezkuntzan zikloen arabera batzordeak sortzea da, ICParen arlo guztiak landu eta arloen arteko koherentzia eta kohesioa bermatuko dutenak.
KLAUSTROA	<ul style="list-style-type: none"> - Lan Batzordeek idatzi eta Koordinazio Batzordeak/Pedagogia Batzordeak eratu dituen ICParen atal ezberdinak onartzeaz arduratzen da. Gai asko landu behar direnez, zenbait bilera monografiko antolatu eta burutu beharko dira, eta bilera horien artean, nahikoa denbora utzi beharko da proposamenak irakurri, gogoeta egin eta hala balegokio, zuzentzeko. Era berean, komenigarria da, lanaren antolaketa eta lan-metodologia zehazteko aldez aurretiko saio bat burutzea; saio hori Koordinazio Batzordeak/Pedagogia Batzordeak prestatuko du lehenago.

3.3.2.- LAN PROZESUA

ICPa birmoldatzea prozesu konplexua da, beraz, fase guztiak aurreikustea komeni da proiektua eraginkortasunez burutu ahal izateko. Hona hemen eredu bat:

PAUSOAK	ORGANOA	FUNTZIOAK/ZEREGINAK
1	ZUZENDARITZA-TALDEA	<ul style="list-style-type: none"> - Proposamenak - Dinamizazioa - Lidergoa
2	KOORDINAZIO BATZORDEA EDO PEDAGOGIA BATZORDEA	<ul style="list-style-type: none"> - ICP a birmoldatzearen beharrari buruzko erabakia - ICP berria egiteko edo birmoldatzeko prozesua antolatzea: <ul style="list-style-type: none"> o Faseak o Denboraren kudeaketa o Antolaketa o Batzordeen lanerako orientazioak o Materialak
3	KLAUSTROA	<ul style="list-style-type: none"> - Koordinazio Batzordeak edo Pedagogia Batzordeak egindako prozesua aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea. - Lan-batzordeak eratzea.
4	LAN-BATZORDEAK	<ul style="list-style-type: none"> - Plangintza - Lan metodologia: <ul style="list-style-type: none"> o Eginda dagoen ICP tik abiatzea o Dekretutik abiatzea - Praktikaren analisisa: <ul style="list-style-type: none"> o Mantendu beharreko alderdiak o Aldatu edo ezabatu beharreko alderdiak - Ekarpinak jasotzea: <ul style="list-style-type: none"> o Dekretuarenak, derrigorrezkoak direnak eta ez direnak bereizita. o Beste batzuk, askotariko materialetatik hartuak, beste ikastetxe batzuetan egondako esperientziak...
5	KOORDINAZIO BATZORDEA EDO PEDAGOGIA BATZORDEA	<ul style="list-style-type: none"> - Batzordeen proposamenak jasotzea eta proposamen berria idaztea. - Proposamenak irakurtzea eta antolatzea, zuzenketak eginez edo euren arteko beharrezkoa den koherentzia bermatzen duten proposamenak eginez <ul style="list-style-type: none"> o Batzordeek egindako proposamenak jasotzea, gai hauen

		<p>inguruan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Klaustroan eztabaidatu beharreko gaiak. ▪ Prestakuntza beharrak. <p>– Proposamen horiei Batzordeari beharrezkoak iruditu zaizkionak gehituko zaizkie.</p>
6	KLAUSTROA	<p>– Lan batzordeen proposamenen inguruan zenbait bilera monografiko burutzea. Horretarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Irakasleriak proposamen horiek aurretiaz izan beharko ditu, oinarritzko dokumentua, eztabaidatu beharreko alderdiak eta aurreikusitako prestakuntza beharrak irakurri, horien gaineko gogoeta egin eta aldaketak proposatu ahal izateko. <p>– Prozesua horrelakoa izan daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Lan batzordeko kideek aurkezpena egitea. ○ Aurretiaz zehaztutako puntuak eztabaidatzea. ○ Amaierako erabakiak. ○ Prestakuntza proposamenak zehaztea
7	KOORDINAZIO BATZORDEA EDO PEDAGOGIA BATZORDEA	<p>– Klaustroan erabakitakoa OOG ari edo Eskola Kontseiluari eta Administrazioari bidaltzea.</p> <p>– Iradokizunak, iritziak eta oharra jasotzea</p>
8	KLAUSTROA	<p>– Jasotako iradokizunak/oharrrak eta amaierako erabakiak aurkeztea eta eztabaidatzea.</p> <p>– ICP a egitean -birmoldatzean jarraitutako prozesua edo ICPan landutako alderdiak ebaluatzea. Ondorengo fase edo antzeko prozesuetan kontuan hartzeko ondorioak jasotzea.</p>
9	ZUZENDARITZA- TALDEA	<p>– Hezkuntza komunitateari ICPa helaraztea.</p>

4.- DOKUMENTAZIO OFIZIALA

<p>Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko 175/2007 Dekretua http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/f10_e.html</p>
<p>97/2010 Dekretua, EAEn Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a sortu eta ezartzeko den 175/2007 Dekretua aldatzen duena http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2010/04/1002109a.pdf</p>
<p>Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzen duena http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/curriculum_2010/basica_refundido_2010/indice_basica_c.pdf</p>
<p>Tutoretza materialak http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/materiales_tutoria_indice_e.html</p>
<p>Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arautzen duen agindua http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2008/07/0804531a.pdf</p>
<p>12/2009 Dekretua, EAEn Haur Hezkuntzako curriculuma sortu eta ezartzen duena http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2009/01/0900469a.pdf</p>
<p>121/2010 Dekretua, EAEn Haur Hezkuntzako curriculum a sortu eta ezartzeko den 12/2009 Dekretua aldatzen duena http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2010/05/1002355a.pdf</p>

<p>Dekretua, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituen (testu moldatua) http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/curriculum_2010/curriculo_infantil_refundido_c.pdf</p>
<p>Plan de acción para el desarrollo de una Escuela Vasca Inclusiva (borrador) http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2519/es/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/dif7/es_2082/adjuntos/escuela_inclusiva/documento_consulta_c.pdf</p>
<p>201/2008 dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. (EHAA 08-12-16) http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2008/12/0806986a.pdf</p>
<p>Ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretua betetzeko gida http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dia6/eu_2027/adjuntos/derechos_deberes/derechos_deberes_e.pdf</p>

**PRESTAKUNTZAN ETA HEZKUNTZAREN BERRIKUNTZAN LAGUNTZEKO ZENTROA.
DONOSTIAKO BERRITZEGUNEA**

2010-11 IKASTURTEA (2011-03-25)

Lan taldea:

- **Dorronsoro Plazaola, Lourdes**
- **Extramiana Cameno, Ana**
- **Irastorza Uria, Lourdes**
- **Rodriguez Mateos, Juan Manuel**
- **Sarasa Aguado, Elena**